



BITORIANO ETXEZARRETA ETXE AUNDI Itturizarreko itturri barrixa

Bakuetik aurrera fanda, Aretxabaletako muga, bada Itturizar izeneko paraje bat, Zañartu eta Torreausokuen artian oso eza-guna. Baiña bertan dagueu ittu-
rri dotoria ezta, ez, aspaldikua, orain dala bi urte Etxeaundiko Bitorianok egindakua baiño.

Itturixa ikustera maiatzeko egun bero baten fan giñan berarekin eta bai gustora edan gebela hango ur freskua, Bitorianoren esplikaziñuak entzuten gittuan bittartian.

- Itturri formala da hau, bere deposito, grifo, baso eta guzti. Lehen zelakau zan, ba?

Lehen hemen ez eguen halakorik, ur garbixa urteten eben lekua besterik ez, potzu haundi bat.

- Baiña edateko moduan bai?

Bai, baiña potzutik hartu bihar zan. Pentsau egizue, kazan ibiltten giñan garai hareittan, suerte txarra eukitten geben: txakurrak gu baiño lehenago allegaitten ziran potzura eta dana zikinketan ebein, gu heldu orduko. Geruago, konponketa bat egin notzan nik, tapa eta guzti, eta orduan etzan ura zikinketan, tapia jaso eta edan. Baiña, neuri pentsaitten xaten gutxi zala ur honeinddako, hori baiño gehixago merezi ebeilla, eta halaxe erabagi neben itturixa egittia.

- Zelakua da ura?


Ur hau beti dator bardin, freskua, tamaiña ederrian; gura beste edan leike hemendik, katarorik hartzeko bilddur barik. Eta beti garbi; gure ama zanak 35an hemengo ura anali-zaittera bialdu eben Donostiara, eta *arenisca, cristalina y de muy buena calidad* zala esan otzain. Izan be, holako areatxo bat izten dau potzu barrenian.

- Iturri hau lehen be zuen terreno-tan eguen?

Bai, Etxeaundiko terrenuak ziran honeik lehen, eta gero anaien artian partiziñua egin zanian, neu geratu nintzan sail honekin, batez be itturixa eguelako eta hau moldaittia neure ilusiñua zalako.

- Zenbait urte pasau dozu hau egitten?

ITTURIZARREKO URA
freskua da oso,
TAMAIÑA
EDERREKUA,
KATARRUA HARTZEKO
BILDDUR BARIK GURA
BESTE EDATEKO
MODUKUA.



Ez, urterik ez! 94an hartara jarri giñan, hillabetian akabo geben hau hiru lagunuen artian. Depositua, gai-
ñeko losak eta letreruak etxian egin nittuan, baiña beste dana hementxe bertan: atzeko paretia inguruko harri-xakin, frentiak, ura gaiñezka datorre-
nerako pasua, eskillaratuak...

Gero, hiru pago be sartu nittuan ittu-
rrittik gertu. Baiña, itxuria, berandu-
txo ibilli nintzan eta ez ebein hartu, igartu egin ziran. Horregatik hurren-
go urtian lehentxuago ibilli nintzan beste hiru sartzeko, eta honeik bai, honeik ondo datoz. Igual nik eztot ikusiko, baiña kerizpe ederra emun-
go daue honeik itturri inguruan.

- Depositto gaiñeko harri honeik nunguak dira?

Horreik erreka-harrixak dira, Olateko errekan hartutakuak. Itturixa zainke-
tako letrerokuak, barriz, marmol zatitxuak dira. Semiari esan notzan hori egitteko: lehenengo lapitzarekin letrak markau eta gero marmol pus-
ketekin bete zittuan.

Itturixaren izena eta urtia dakon pla-
kia nik egin neben kaltzairu inoxida-
bliaz; burdiñan egittia baiño zaillagua da, baiña merezi dau gero betiko iza-


Umerez

**Iturgintza • Berogailuak •
Bainu altzariak**

Arantzazu, 21 behea • OÑATI • Tfnoa: 71 62 00

BAR GALICIA

Atzeko Kalea, 22
Tel. 78 22 08



ten da-eta. Grifua eta basua eukitte-ko hori be inoxidablezkuak dira.

**DENPORIAREAKIN
ITTURRI GAIÑA BE
TXUKUNKETIA GURA
DOT.**

- Txorrotada ederra dator eten barik itturritik; beti etorten da igual? Ura nundik datorren bada-kizu?

Hemen beti etorten da ur asko, nik eztot sekula hau sikatuta ikusi. Eta nundik datorren? Ba, orain tamaiña baten doia ura ezta? Ba, hemen ura gehiketan hasteko 8-10 bat egunian egin bihar dau eurixa segidu-segidu, terrenuak ondo aseta egon bihar daue hemen ura gehiketako.

Aurten lurak eztira ase bihar dan moduan. Urruxulako itturri bat, nik ur barik sekula ikusi eztotena, aurten sikatu da. Jentia esaten eben beste nunbaittera fango zala hango ura, baiña gero barriz be etorri da. Aurten haiziak be fuerte jo dau, baztar guztiak lihortuaz.

- Hemen inguran sute formalak egon dira urte hasieran...

Bai, inguruko baso-sail asko erre ziran, neuria be bai bat, 7 urteko




piñua eukan Bakueko saila. Hemen itturrixa baiño beheragotik pasau zan sua eta egun haretan goizetik ni hemen izan banintz, beste gauza bat pasauko zan. Itturri honek dakarren ur kaudalarekin eta hemen ebali zan mangera morduarekin lur-sail haundi-xa busti zekien sua etorri aurretik.

- Egutero etorten zara hona?

Astian pare bat aldiz-edo. Guk, San Pedrokuak izanda, honako joeria dakogu. Urbixa eta Arabako mendi-xetan be asko ibilitta nago, baiña orain, piñuduixak dirala-eta, gehixago etorten naiz honuntz.

- Arriurdiñeta be inguruan dago ezta?

Bai, hor gaintxuan. Leku berezixa da hori, inguruan beste iñun eztaguer harri-klasia dago han. Iñok eztaki zer gaittik. Nik entzunda dakot Leonard Zabaleta abadiak meteoritoren bat zala esaten ebela. Beste kontu batzuk be badagoz horren inguruan esaterako San Pedroko zubixa Arriurdiñetako harrixekin egin ebeilla Nikolastarrek gau batian. Hor ibill zirala aiba Nikolas, benga Nikolas harrixak karriaiten zubiraiño, baiña obria akabaitteko harri bat falta zala, oillarrak kukurruku egin ei eben eta dana bertan behera itxitta alde egin bihar izan ebeilla.



LASAGABASTER
Zure konfidantzako denda

Zerkaosteta, 1 eta 2. ARRASATE Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55